

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko uztailaren 7ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 289/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Onestea Elena Aulestiarte Laca andrea diputatu nagusiaren behin-behineko konfiantzako idazkari lanpostuan izendapena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 290/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak lurralde historikoko Taxiaren Batzordean duen ordezkaritza berritzeari.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 291/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Onestea Laudioko Lamuza jauregiaren kanpoko inguratzailea zaharbertzeko eta haren energia eraginkortasuna hobetzeko obrak egiteko epea luzatzea, Laudioko Lamuza kaleko 12 zenbakiko eraikinean.

Foru Gobernu Kontseiluaren 292/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Onespena ematea jarduteko protokolo nagusia sinatzeari Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiekin, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalekin eta EUDELekin, turismo bonuak abiarazteko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 293/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Onespena ematea jarduteko protokolo nagusia sinatzeari Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Aldundiarekin, Bilboko eta Gasteizko udalekin eta EUDELekin, merkataritza bonuak abiarazteko.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 294/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Behin betiko onestea Mañuetako udalerriko ondasun higiezin gaineko zergari lotutako lurzorua eta hiri ondasun higiezin balioztapen txostena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 295/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Behin betiko onestea Bilarko udalerriko ondasun higiezin gaineko zergari lotutako lurzorua eta hiri ondasun higiezin balioztapen txostena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 296/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Behin betiko onestea Kripango udalerriko ondasun higiezin gaineko zergari lotutako lurzorua eta hiri ondasun higiezin balioztapen txostena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 297/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Behin betiko onestea Navaridasko udalerriko ondasun higiezin gaineko zergari lotutako lurzorua eta hiri ondasun higiezin balioztapen txostena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 298/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Onespena ematea konpromiso kreditua 2020. urtealditik 2021. urtealdira birbanatzeko 9/2020 espedienteari, 17.524,80 euroan, gastuen egoerako "Arabako Lurralde Historikoan Klima Aldatzeko Estrategia 2020-2030" partidan, hala eskatu baitu Ingurumen eta Hirigintza Sailak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 299/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Onestea 15/2020 konpromiso kreditua 2020. urtetik 2021. urtera birbanatzeko espediente, 29.040,00 euroko zenbatekoaz,

gastuen egoerako "Katastro erregistroa koord. aplikazioa. AUKK" izeneko partidan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 300/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Onestea 44/2020 kreditu transferentziaren espedientea, 140.805,35 eurokoa, "Posta Komunikazioak" izeneko partida funtsez hornitzeko, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eskatuta,.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 301/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Onestea Uribarri Arratzuako Kontzejuko batzorde kudeatzaileko kideen izendapena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 302/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Onestea Arabako Foru Suhiltzaileak (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoko lanpostuen zerrenda aldatzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 303/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Onestea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren zerbitzuan ari diren langileen eta kargu publikoen ordainsariak ehuneko 2 handitzea 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 304/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. FIRMES ALAVESES SA -YARRITU SA ABEEari adjudikatzea "Foru sareko zenbait errepidetan erroadura geruza birgaitzeko eta berriro jartzeko proiektua. 2020. urtea" proiektuaren obrak. Zenbatekoa: 964.877,02 euro BEZa barne. Gauzatzeko epea: 3 hilabete.

Foru Gobernu Kontseiluaren 305/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Nuño y Pescador SA enpresari adjudikatzea "Foru sareko zenbait errepidetan hartxintxarra botaz gainazala tratatzeko proiektua. 2020. urtea". Zenbatekoa: 258.637,35 euro, BEZa barne. Gauzatzeko epea: 2 hilabete.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 306/2020 Erabakia, uztailaren 7koa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura diharduten langileen oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak ehuneko 2 igotzeari, 2019ko ekitaldian ezarritakoekin alderatuz.